

# Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

ANDOAIN	2015	2016
PODEMOS:	2.339	2.378
PSE-EE:	1.472	1.383
EH Bildu:	1.542	1.300
EAJ-PNV:	1.345	1.263
PP:	597	636
Abstentzioa:	3.531	4.064

URNIETA	2015	2016
PODEMOS:	882	933
EAJ-PNV:	777	646
EH Bildu:	535	444
PSE-EE:	451	435
PP:	232	250
Abstentzioa:	1.595	1.826

2016ko uztailearen 1a, 488 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

HAUTESKUNDE OROKORRAK, EMAITZAK

## Jaiak amaitu eta berehala obrei ekingo diete Kaletxikin

Datorren astelehenean eraikin zaharrak eraisteari ekingo diote, jaiak amaitu eta biharamunean.

Jaiak amaitu eta berehala hasiko dira lanak auzunean. Lehen egunetan Kaletxiki 28 eta 30 zenbakidun eraikinak botatzeari ekingo diote, eta uztailearen erdialdera Goikoplazarainoko bidea irekiko dute ur hoderia sare berria sartzeko. Bi lan horiekin auzuneko egunero bizitza eraldatuko da, hiru hilabeteko epean. Bitartean ibilgailuen joan-etorrirako, aparkatzeko edota zaborrak botatzeko bizilagunek ohitura berriak hartu beharko dituzte.

Asteartean Andoaingo Udalak bi bilera deitu zituen, lehen merkatariekin eta bigarren



Auzotar ugari astelehen arratsaldean Berrozpe ikastetxean, Udalak deituriko bilera. Goizean merkatariekin bildu ziren.


auzotarrekin. Azalpenak eman eta gero, auzotarren kezka nagusia ibilgailuen ingurukoa zen. Udalak udan Berrozpe ikastetxeko jolastokian eta Goikoplazan aparkatzeko au-

kera eskainiko du. Eta trenbide ondoan eraitsiko dituzten eraikin horiek garbitu eta gero, lur azalera horretan ibilgailu gehiago uzteko aukera aztertzen ari dira.

Ur hoderia hiru fasetan berrituko dute, ahalik eta eragozpen txikiena eragiteko.

Lanekin hasi aurretik, jaiak ospatuko dituzte asteburuan. [ANDOAIN, 5. ORRIALDEAK]

## Akelarrea, ikuskizun dotorea



Ikuskizun ederra eskaini zieten urnietarrei Akelarrean parte hartu zuten talde ezberdinek. Suaren inguruko ospakizun dotorea izan zen.

[URNIETA, 2.-3. ORRIALDEAK]

## Sanjuanak irudi bidez

[GEHIGARRI BEREZIA]

## Mikel Arregi, aurtengo Kandido



Kaletxikin ospakizun ugari egingo dituzte asteburu osoan zehar. Mikel Arregi auzokide gaztea izango da aurtengo Kandido.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEAK]

## Urnieta Bizirik plataforma sortu dute

Erraustegiaren aurkako asanbladak hirugarren bilera deitu du ostiral honetarako, Urnietan.

Iluntzeko 19:00etan hasita, Guria ondoko plazan erraustegiaren aurka dauden herrikideek bilera berria deitu dute. Azken bi asteetan egin duten hirugarrena izango da.

Herritar taldeak dagoeneko izena ipini dio plataformari: Urnieta Bizirik.

Erraustegiaren eraikuntzarekin "kezkatuak gauden Urnietako herritarrak gara" izan zen haietako batzuk adierazi zutena, Aiurrira duela bi aste igorritako gutunean. Adin ezberdinetako herritarrak hurbildu dira lehen bi hitzorduetara.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]



Ekainaren 19an deitu zuten asanblada irekia, San Juan plazan.

# Ernaitza

## liburudenda

**PRESTA ZAITEZ HURRENGO IKASTURTERAKO:**

- Ikastetxe guztietarako ikas-liburuak %10eko beherapenarekin edo forratuta.
- Eskolarako materiala preziorik hoberenean.

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459  
ernaitza@yahoo.com

## URNIETAKO AKELARREA 2016

# Ezinbesteko hitzordu bilakatu da Urnietan

Sustatzaileek iaz ezuste handia samarra eragin zuten Akelarrea lehen aldiz eskaintzean. Xarma berezia ematen dio San Juan suari, eta herrian bertan geratzeko amu bikaina da.

Txalo biziz erantzuten dien jendetza erakartzea lortu dute. Azken hilabeteotako lanek bere fruitua eman dute. Herriko eragileek, elkarlanean, erakustaldi ederra eskaini zuten.

Euriaren agerpenarekin hilabeteetan prestaturiko ikuskizuna zapuzteko arriskua izaten da Euskal Herrian, bereziki ekitaldiak aire zabalean antolatzen direnean. Giro lainotua zegoen ekainaren 23ko arratsaldean. Gaueko bederatzia jo zutenean euri tanta batzuk agertu ziren, eta bat baino gehiago beldurtzen hasi zen. Zorionez, ordea, lainoak Akelarrea ikustera hurbildu zirela esan genezake. Euriaren arrastorik ez, eta horri esker urnietarrek ikuskizun dotoreaz gozatu ahal izan zuten. Txanbolin banda, Buruntzantz, funky dantza taldeko gaztetxoak, sorginak..., denen artean euskal mitologian hain errotuta dagoen Akelarrea antzeztu zuten. Ikuskizun bizia eta erakargarria eskaini zuten, sua piztearekin borobildu zena. Ikustekoa zen sugarra, dozena bat metrokoa. Ausartenek sua barretu arte itxaron behar izan zuten.



Taula gainetik, Txanbolin taldearen ikuspegitik San Juan suaren ospakizunaren bi osagai garrantzitsu ikus zitezkeen: Sua, eta sua ikustera hurbildutako herrikideak.



Agurra dantzatu zuten ekitaldiaren hasieran, Sorgiñen agerpenaren aurretik.



Buruntzantz taldekoek jarritako erritmoari jarraituz, Funky taldekoek dantza egin zuten.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

URNIETAKO AKELARREA 2016

# Akelarrearen protagonistak



Sorginek eman zioten amaiera kalejirari, perkusio joleen eta funky dantzari gazteen atzetik.



Akerra eta Mari, sua piztu aurretik.



Konjurua egin zuten hiru sorginak.



Buruntzantza taldea sasoiko aritu zen kalejira osoan zehar, ia atsedetik hartu gabe.



Txanbolin banda, ezinbestekoa suaren inguruko ikuskizunean.



Funky dantza taldeko gaztetxoek, plazara sartu aurreko azken geldialdian.



Lupe Martiarenak izan du azken urteetan sua pizteko ohorea.

"GABON TXIRRITA" ANTZEZLANA, IRAILAREN 10EAN DONOSTIAN ETA 23AN URNIETAN

# Gabon Txirrita antzezlana entseguetan murgilduta

Saroben etengabea da egunotan "Gabon Txirrita" antzezlanean parte hartzen ari diren hogeita hamar aktoreen joan-etorria. Entsegu orokorrak, arropa eta makilaje probak... Eta horrela izango da uz-

tailaren 15era arte. Orduan, udako etenaldia egingo dute, abuztuaren bukaera aldera entseguen azken txanpari gogotsu ekiteko. Aiu- rri astekariak antzezle batzuen iritzia jaso du.



Joxe Mari Agirre.



Izaskun Labat.



Isidro Salinas.



Uxue Mayoz.



Jonmar Sarasua.

## GALDERAK

- 1 Zein da zure papera obran? Nolakoa da zure pertsonaia?
- 2 Antzekigintzan, honen aurretik zer lan egin duzu?
- 3 Nolakoa da talde giroa, nola doaz entseguak?
- 4 Zergatik ikusi behar da Gabon Txirrita?

## Joxe Mari Agirre

1. Sekundino naiz, lanbidez hargina, eta Txirritaren kapataza. Bere aurkako epai- ketan fiskalaren aldeko lekukoa naiz. Txirrita ez dut gustuko, lanerako txarra, al- ferra, parrandazalea eta as- kotan istilu bila ibiltzen de- lako.
2. Ez da lehenengo aldia, Ur- nian azken urteetan egin diren antzerki herrikoï guz- tietan hartu baitut parte, Marizulo, Urnieta 59 eta 1936 antzerki lanetan, ale- gia. Aurretik ez nintzen inoiz antzerkigintzan aritu, baina, Marizulo lana presta- tzen ari zirenean norbaitek baja eman zuen eta zu- zendariak azken orduan es- kaini zidan parte hartzeko aukera. Eta, egia esan, oso gustura ibili nintzen.
3. Talde giroa aparta da, orain arte eszenaka egin ditugu entseguak eta horregatik ez ditut parte hartzaile guzti- guztiak ezagutzen. Testua

ondo ikasita dugu eta orain eszenatokian gure lekua har- tzen ari gara.

4. Antzezlana atsegina delako, bere historia duelako, aspaldian Urnieta gazteek antzeztutakoa delako, Xabier Letek idatzia delako, Txirri- ta pertsonaia ospetsuaren bi- zi-pasadizo eta bertsoetan oinarrituta dagoelako.

## Izaskun Labat

1. Txirritaren arrebaren papera antzeztuko dut. Paper nahi- ko txikia da, baina esango nuke nire pertsonaiak ez duela anaiarekiko begirune handirik.
2. Oso gustukoa dut antzerki- gintza eta ahal izan dudan guztietan eman dut izena ikastaro edota klaseetan, ba- tez ere, unibertsitate ga- raian. Hala ere, inoiz ez dut horrelako obra batean parte hartu.
3. Egia esan duela gutxi hasi naiz entseuetan, lanagatik ezin izan dudalako lehenago hasi, baina, uste dut giro po- lita dagoela. Jendeak lan handia egin du, pertsonaia batzuk oso landuta daude, harrizta nago!
4. Alde batetik, interesgarria iruditzen zait ikustea Txirri- ta eta garaiko bizimodua ho- beto ezagutzeko, eta obra Xabier Letek idatzi zuela kontuan harturik, polita iru-

ditzen zait bere bitartez eza- gutzea. Bestalde, uste dut ikusleek oso ondo pasako dutela obrak momentu ba- rregarri asko dituelako eta aktoreek oso ondo antzeztu- ko dutelako.

## Isidro Salinas

1. Txirritaren aita naiz, eta oso haserretuta nago semeare- kin. Obraren zehar ikusiko den moduan, arrazoï ugari ditut horretarako.
2. Marizulo taldean hasi nin- tzen, eta geroztik Antzerki tailerlean eta Urnietan an- tzerkiari lotutako saltsa guz- tietan parte hartu izan dut.

3. Oso giro ona dago gure arte- an, horregatik jarraitzen dut hemen. Entseguak oso ondo doaz, eta dagoeneko obrak oso itxura ona du.

4. Obra oso polita delako. Xa- bier Letek idatzia denez eta Txirritaren bizitzan oinarri- tuta dagoenez iruditzen zait biei omenalditxoia egiteko modu ederra dela.

## Uxue Mayoz

1. Emakume alargun baten alaba naiz. Neska gazte bat naiz eta Txirritarekin ezkondu nahi naute, baina azkenean gauzak ez dira nire amak nahiko luke- en bezala gertatzen.

2. Eskolan egin izan dut antzez- lanen bat, baina, herri mailan ez naiz inoiz aritu. Beraz, le- henengo izango da, dimen- sio honetan, behintzat.

3. Oso giro polita dago gure ar- tean, eta egunak aurrera do- azen heinean, geroz eta itxu- ra hobeto du antzezlana.
4. Txirritaren bizimodua erabat xelebrea zen, eta gainera, antzerki moduan ere bere grazia badu. Beraz ikustek merezi duela uste dut.

## Jonmar Sarasua

1. Nahiko paper laburra da ni- rea. Nire pertsonaiak sindi- kalista antzeko izaera du, eta Txirritaren aldeko lekukoa da.
2. Obra honetan ari garen beste askoren antzera, nik ere, Ma- rizulo, Urnieta 59 eta 1936 obratan parte hartu nuen.
3. Ona. Martxoetik orain arte es- zenaka entseuetan aritu gara. Hemendik aurrera turboa jar- tzea egokitzen zaigu, asmoa, uztailaren 15erako obra ondo prestatuta uztea baita, iraila- ren lehen bi asteetan azken entseguak egin eta irailaren 10ean modu txukunean Do- nostian taularatzeko.
4. Gure gertuko iraganeko hainbat bizipenetan oinarri- tako antzezlana izanik, gure historia pixka bat hobeto ezagutzeko aukera parega- bea delako.

## LAN TALDE HANDIA OBRAREN INGURUAN



Gabon Txirritako lan taldea. Ezkerretik eskuinera: Lucia Saiz, Enkarni Cuesta, Maribel Tardio, Jaione Jauregi eta Miren Eskisabel.

2016, ekaina



# Hasiera bikaina udari



# Ontza elkarteak eman zien hasiera parte hartze handia izan duten San Juan jaiei

**EGUNEZ ETA GAUEZ EGIN DIREN EKITALDIETAN HERRITARREN PARTE HARTZEA HANDIA IZAN DA. SORTU ZEN HIRUROGEITA HAMABOSGARREN URTEURRENEAN, ONTZA ELKARTEAK JAIEN HASIERAKO PREGOIA IRAKURRI ETA TXUPINAZOA BOTA ZUEN.**



Oihana Arrizabalaga, aurtengo irabazlea.



Sergio Vallejo, bigarren sailkatua.



June Igerategi, lehen sailkatua gazteen mailan.



June Miner, bigarren sailkatua gazteen mailan.



Ontza elkarteko ordezkariak, Udal ordezkariekin.



Kaletxikitik abiatu zen Ontza elkarteko komitiba.



Ontza elkarteko danborrada aldapan gora, Etxeberriaren zuzendaritzapean.



Ganemos, EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdietako ordezkariak Soka-dantzan parte hartu zuten.



Buruhandi eta erraldoien konpartsa, Goikoplazan.



Ikusgarria eta jendetsua izan ohi da San Juan bezperako suaren inguruko jaia.



Pello Uranga eta Mari Karmen Zuaznabar txalapartariak ez zioten hutsik egin aspaldiko usadioari.



Urkiko dantzariak iaotasunez dantzatu zituzten Otsagabiko dantza biziak.



Agustin Leitzako danborrada, gauaren azken ekitaldia.



Txistulariek kalejira egin ohi dute jaien hasieran, Zumeatik hasita.

# Inoizko Axeri dantzarik parte hartzaileenak ziurtatuta dauka etorkizuna



Ontza elkarteko zuzendaritza batzordea, Axeri dantzarien bazkaria prestatu ostean.



Axeri dantzariak esker oneko zortzikoa eskaintzen sukaldariel.



Katrin Iturralde Andoaingo helduen bi abesbatzak zuzentzen, Salbe Gorenean.



Oholtza gainean egin zen bertso saioa, euria zela eta.



Katrin Iturraldek zuzentzen duen gazteen abesbatza, Salbe Gorenean.



Andoaingo txalapartariak tramankulu berria estreinatu zuten, trasteak garraiatzeko.



Aldibereko saioak egin zituzten gazte eta helduek, Agustin Leitzako xake taldeak antolatuta.



Kantu kalejirako taldeak eta txalapartariak ekinean Komunisten tabernan.





Axeri dantzariak, txistulariekin eta dultzaineroekin, dantza saioari ekin aurretik.



Mikel Erbiti zortzikoa trebeziaz dantzatzen.



Dorrea egin ostean, perratzaileak eta perratuak zaldiko gisa, biribilketaren doinupean.



Berrogeita hamabi axeriak ilaran jarri eta txingoaren saioa egiten.



**2016ko Sanjuanak, Axeri-dantza:**

“1975ko Sanjuanak gogora, atzean geratzen da gure Axeri-dantzaren hasiera. Niretzako zoragarriak izan diren hauetan, etapa ezberdinak ezagutu ditugu. Urrats garrantzitsuak eman ditugu eta denborak arrazoia eman digu. Gaur, San Juan eguneko eguerdiko hamabietan Axeri-dantzan berrogeita hamabi pertsona dantzan ikustearekin geratzen naiz; gaurkoa, hau aurrera daramazuen guztiaren uzta da. Bejondeizuela! Jarraitu horrela, eta ea datorren urtean gehiago zareten! Plazer bat izan da zenbait urtetan zuekin dantzan aritzea eta, gaur egun kanpotik bada ere, taldekide izaten jarraitzea. Eskerrik asko eta Gora Axeri-dantza”.

Juantxo Arregi

# Musika, dantza eta otordu ezberdinak San Juan jaietako gatzza eta piperra



Udal musika eskolako Mugaz taldeak hainbat bertso interpretatu zituen, Mirari Irurzunek zuzenduta.



Azelaingo ballet eskolako kideek, dantza modernoak ere eraman zituzten oholtzara.



La Salle-Berrozpeko ikasleek funky eta ballet emanaldia egin zuten Goikoplazan.



Gaztetxoek ederki gozatu zuten apar festarekin.



Bertxin jubilatuen elkarteak hainbat ekitaldi antolatu zuen Sanjuanetan.



Andoaingo auzoetako jai batzordeetako kideek urteak daramatzate herri bazkaria antolatzen.



Esne Beltza taldeak makina bat gazte erakarri zuen Nafarroa Plazako kontzertura.



Xabi Solano Esne Beltzako kantaria, ikusleen artean abesten.



Urtez urte, poliki-poliki sendotzen ari da herri bazkaria.



Mikel Lakalle eta Maitane Lopez de Munain, herri bazkariko zozketaren ostean.



Joxi Telletxea, Juan Mari Laskibar, Joseba Arabolaza eta Nika Murillo umoretsu bazkariaren prestaketan.



Mikel Emezabalek zuzentzen du Udal musika eskolako banda.



Musika zaleentzat galdu ezineko hitzordueta bat da bandak eskaini ohi duena.

# Atzoko, gaurko eta biharko festazaleak

**SAN JUAN JAIETAN ADIN ETA GUSTU GUZTIETAKO HITZORDUAK ANTOLATZEN DIRA. AURTEN ERE LAUROGEI URTE BETE DITUZTENAK GOGOAN IZAN ZITUEN UDALAK. ASTELEHEN ARRATSALDEA, ALDIZ, HAUR ETA GAZTEXOENA IZAN ZEN.**



80 urte bete dituzten andoaindarrak Goikoplazan bildu ziren, egun ederraz gozatzeko.



La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak astelehen arratsaldeko haur danborradan.



Ikastetxetako danborjole gazteak Olagain txistulari bandarekin batera aritu ziren, Urkirekin batera.



Aita Larramendi ikastolako ikasleak astelehen arratsaldeko haur danborradan.



Ondarreta ikastetxeko ikasleak astelehen arratsaldeko haur danborradan.

## KALETXIKIKO JAIK 2016

# Mikel Arregi gaztea, aurtengo Kandido

Mikel Arregi gaztea izango da Kandido, Kaletxikiko jaietako pertsonajerik gorenena. Bizipen sakoneko egunak esperoan dauzka Arregi, izan ere ezkontzera baitoa larunbatean bertan.

Protagonismo handia hartuko du mutilak beraz, baina lasai ikusten da, datorkionarekin gozatzeko prest. Ondo pasa eta zorionak Aiurriko banatzaile ere badenari.

## Zer moduz hartu duzu Kandido izendatu izana?

**Mikel Arregi:** Gustura. Ilusioa eragin zidan proposamenarekin hurbildu zitzaizkidanean, normala denez.

Badira ia hiru urte Kaletxikin bizi naizela, eta ez dakit ondo kaletxikitarra izatearen "ohorea" irabazi dudana, baina ahalik eta duintasunik handienarekin saiatuko naiz paper herrikoi hori betetzen.

Nire familia Ama Kandida etorbidean bizi da, eta Buruntzako San Roke jaiekin batera, Kaletxikikoak dira gertuen sentitu ditugunak. Umetatik gurasoekin etorri izan naiz jaietara, eta gaztexasgotan, berriz, parrandaren bat edo beste egindakoa naiz.



Mikel Arregiri egun gogoangarriak bizitzea egokituko zaio jaietan.

## Jada ikasita al daukazu zein den Kandidok bete behar duen protokoloa?

**M.A.:** Oraindik xehetasun batzuk azaldu behar dizkirate jai batzordekoek, baina badakit ostiralean eta igandean egokitu zaidala modu solemnean jantzea; batik bat, jaietako bi ekitaldirik handienetan, Txikitxoekin batera jaien hasieran eta Soka-dantzan.

## Asteburu ahaztezin horietakoa daukazu zain, ezkontzera zoazez...

## la kontuan hartuta... Urduritasunik ez?

**M.A.:** Ez gehiegi. Pregoia egiteko oholtzara igo behar da, eta orduan jarri naiteke urduri beharbada, baina tira, Kandidori ez dagokio konferentzia sakon bat eskaintzea, eta horrek lasaitu egiten nau.

Azken batean, gizakiek jaiak gozatzeko eta ondo pasatzeko sortu izan dituzte, eta filosofia horri eusten diot nik behintzat; egoerei transzendentzia

kentzen laguntzen dizu pentsamendu horrek.

## Zer daukazu pentsatua esatea pregoian? Zerbait aurreratzeko moduan al zaude?

**M.A.:** Laburra izango naiz. Besteak beste, Ontza elkartearen urteurrena hartuko dut ahotan, eta lehen esan dudana bezala, aurrean dagoen entzuleei gogoraraziko diet jaiak gure ongizatearen zerbitzura daudela.

## Jaietako programaziotik, zein ekitaldi duzu gogokoena?

**M.A.:** Jai hasiera, esaterako. Kandido eta Txikitxoekin pertsonajeek badaukate aparteko xarma. Ez dago antzekorik Andoaingo gainerako jaietan, eta Kaletxikiko jaietara ematen diotela esango nuke. Larunbatari dagokionez, sagardo txapelketa nabarmenduko nuke, bere inguruan sortzen duen giroagatik. Igandeari begira, berriz, arratsaldeko

*"Nire familia Ama Kandida etorbidean bizi da, eta Buruntzako San Roke jaiekin batera, Kaletxikikoak dira gertuen sentitu ditugunak"*

desafioa egiten zait erakargarriena; aurreneko urteotan parte hartzeko aukera eduki nuen, eta oso ideia polita iruditu zitzaidan, ekitaldi ikusgarri eta lehiatsu baten inguruan jendea erakartzea lortzen baita. Kaletxikiko jaiak azken urtetan eduki duten asmaziorik indartsuena izan da. Gainera, egoera berrietara aldatzen jakin izan du, auzoen arteko lehia planteatuz iaiztik hona.

## Zer esango zenieke Aiurriko irakurleei auzora hurbil daitezen datorren asteburuan?

**M.A.:** Ziurtatuta daukala entretenimendua eta gozamina, jai egitarauak denerako ematen baitu. Batik bat Andoaingo auzorik urrunenean bizi direnei luzatuko nieke gonbidapena: Kaletxikikoak ere joan ohi gara haien jaietara, gertukoak sentitzen ditugulako eta bada-kigulako ondo pasatuko dugula. Ea eurek ere berdin jokatzen duten! Ez dira damutuko!

## Auzoa jaietan ostiraletik igandera

### Uztailak 1, ostirala:

- 19:00** Kandido eta txikitxoekin etorrera, ikurriña elkartean jarriz. Sardin jatea eta buruhandiak.
- 20:00** Kaletxikiko lagunak abesbatzaren kontzertua Berrozpeko kaperan.
- 21:00** Bokatafari herrikoia patata tortila eta hirugihar ogitartekoekin.
- 21:45** Monologoak Bermudez eta Eva Cabezasen eskutik.
- 22:30** Mus txapelketa azkarra Buruntza tabernan.
- 23:30-01:30** DJ Nemux "Disco Rock member" eta karaokea.

### Uztailak 2, larunbata:

- 10:00** Eskupilota topaketa Goikoplazan. Amaieran denak txokotara.
- 10:00** Plater tiraketa Azpikolako harrobian. Goizean entrenamenduak, eta 16:00etan txapelketa.
- 12:00** Sagardo txapelketa hamabi sagardogileen parte hartzearekin.
- 12:00** Haur parkea.
- 17:30** Haur parkea eta buruhandiak.
- 18:00** Herri kirolen erakustaldia.
- 19:00** Pintxo-potea txakolin, ardoa eta kabarekin.
- 20:00** Ontza elkartean afaria.

- 22:15** Kaletxikiko danborrada. Azken entseguak ekainaren 30ean.
- 23:00-01:30** Berbena Camp. Tangoa, pasodobleak eta rantxerak DJ Nemuxen eskutik.
- 01:00** Oilasko hotza txanpainarekin. Zezen suzkoa.
- 01:30** DJ Nemux eta apar festa.

### Uztailak 3, igandea:

- 09:00** Diana.
- 10:00** Kaletxikiko mendi krosa, Miguel Mari Pagolaren omenez. Informazio gehiago: herrikrossa.com.

- 12:00** Meza Berrozpeko kaperan, auzoko hildakoen alde.
- 12:35** Soka dantza Urki dantza taldekoekin eta herritarrekin.
- 13:15** Gora Kaletxikiren emanaldia.
- 14:00** Auzotarren bazkari herrikoia.
- 16:30** Gora Kaletxiki txaranga.
- 17:00** Herri kirolak: Kaletxiki eta San Esteban auzoetakoen arteko lehia mistoa: Harri jasotzea, txingak, ingudea, lokotxak...
- 19:00** Gorritiren animaliak.
- 20:00** Apar festa. Jai amaitzeko Kandido eta txikitxoekin agurra.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Hauteskundeak: Frustrazioaren historia!

**L**ehenengo hauteskundeetan, hots, abendukoetan, Gobernu osatzetik ez zuten izan, bigarren deialdirako bidea hartu zuten. Eta, bizitzan, edozein gertaeratan, zerbait berria hasten dugunean, espektatiba berriak sortzen dira. Hasten dira inkestak martxan; sortzen dira koalizioak eta lehen lortu ez dena lortu asmoz makinaria martxan jartzen da. Bata bestean kontrakoak ere hasten dira, komunikabideak lagun, eta alderdi politikoak norgehiagokan buru-belarri sartzen dira. Herri-tarrak, berriz, kanpaina noiz bukatuko zain, besteak beste, herriaren dirua ere jokoan jartzen baitute. Eta hasten dira apustuak eta espektatibak, nahiak, desioak. Aurreko hauteskundeetan aldaketa nahia nabarmentzen zen. Bipartidismoa

*Euskal Herriko populazioan belaunaldi berriek aldaketa dakarte eta aldaketa hori hobeko bada, ongi etorria izan dadila*

moa hautsi zuten alderdi berriek, aurreko udal hauteskundeetan hautsi zuten bezala, baina, azkenean ez zen sortu eta herritarren frustrazioa sortu zen. Izan ere, betetzen ez diren espektatibek horixe dakarte: frustrazioa. Nire irudiko, ezkerreko indarrak adostasuneran ez ziren iritsi PSOEk Ciudadanos alderdiarekin bat egin eta ezkontza horren ondorioz Ahal Dugu (Podemos) laguntzaile modura eraman nahi zuelako. Eskuinak ere ezin izan zuten gobernuari sortu inork ez zuelako berarekin ezkondu nahi.

Aurreko hauteskundeen eskarmentuz edo Ahal Dugu (Podemos) Ezker Anitzarekin bat egin zuen PSOEri sorsaio eman eta bigarren alderdi izatera iritsiko zirelakoan. Niri koalizioa gustatu zitzaidan, aurrekoan horren beharra ikusi baitzen. Gainera, Ezker Anitzeko buruari, Garzon, gaztea, aldaketaren aldekoa, gaurko gazteekin sintonia duena, elementu ona irizten diot.

Baina jakin dira bozketaren emaitzak, inkesta guztiak han-

kaz gora utzi dituenak: PSOEk irabazi dio IU-Podemosi. PSOE, ordea, 1977tik honako emaitza txarrenak izan ditu. Hor ere, izango da iskanbila eta botere lehia. Oraingoan ere aukerak izanen ditu: eskubira ala ezkerera jo. IU-Podemosen ere izango du non sakondu. Nago Britainia Handian Europatik ateratzeko hartu den erabakiak eragina izan duela herritarrek beldurra nabaritu baitute hemen ere. Arrazoiak asko izan daitezke eta hedabideak hor ibiliko dira luzaroan arrazoi horiek sakontzen eta aurkitu nahian. PPri buruz zer esan. Hori bai dela ulergaitza. Hainbeste ustelkeria kasuk, barne ministroaren mutur sartzeak, ez dute jendearen eraginik eta, horrez gain, 14 diputatu gehiago lortu dituzte. Hau ulertuko duenik!!

Euskal Herriari dagokionez, ordea, emaitzak desberdinak izan dira. Ahal Duguk irabazi ditu abendukoak gaindituz. Bizkaian, betidanik EAJren eremua izanik, oraingo honetan Ahal Duguk irabazi dio, eta Gipuzkoan ere aurre hartu dio EAJri. Bilduk emaitza kaxkarrak lortu ditu. Beti esan ohi da emaitza hauek ezin direla hemengo hauteskundeetara egokitu, eta egia da. Baina, halere, Euskal Herriko popula-



Andoainen UPyD edota PCPE alderdien propaganda afitxak ikusi dira egunotan.

zioan belaunaldi berriek aldaketa dakarte eta aldaketa hori hobeko bada, edota belaunaldi berrien ezaugarria bada, ongi etorria izan dadila. Dena doa aldatuz, gizakia barne, eta etengabeko aldaketa zuzentzen duen printzipio hori onartu beharra dugu. Hemengo hauteskundeetan besterik gertatzen dela, ba, Ahal Duguk beti izanen du indarra bere antzekoekin eskuz esku joateko.

Galdera da: Orain zer? Ba, orain, batek esango lukeen bezala, auskalo. Oraingo honetan ere PSOEk du aukera: gobernaioa ezkerera jo ala eskuinera eraman. PSOEko jauntxoek ez diote Sanchezi IU-Podemosekin joaten utziko.

Horiekin eta EAJ, EH Bildu, Katalanak eta etab. Ciudadanosek ez ditu bozka asko, eta asko ez izanik ere, garbi utzi du bera ez doala nazionalistekin inora. Oso zentralistak baitira.

Aukera egon badago ezkerreko gobernu lortzeko baina, lehen esan bezala, PSOEren barnean tirabirak izanen dira, eta nago PPK eta Ciudadanosek osaturiko gobernuari abstentzioa emango diotela. Ikusi dugu. Afari bat jokatu dut PPK eta PSOEek ez dutela bat egingo, baina hemen ere auskalo esan behar. Dena den, orain hasiko dira itunerako elkarriketak. Ezkerren aldekoa naiz ni. Beteke ote da nire desioa!





# KIROL ALBISTEAK

## Gazte mailako finalak San Juan jaietan



Jaietan haur eta gazte mailako eskuz binakako finalak jokatu ziren Arrate pilotalekuan. Jarraian, finaleko partaideen ize-nak eta emaitzak:

### Benjaminak 1

Oihan Amilibia-Ibai Miguel	9
Eneko Uriá-Befiat Salvador	16

### Benjaminak 2

Mikel Gaztañaga-Tasio Abrego	16
Xabar Jauregi-Iñaki L.Munain	12

### Alebinak 1

Asier Peñalbo-Markel Salgado	14
Urko Otamendi-Markel Rabadan	16

### Alebinak 2

Xabat Miner-Julen Gaztañaga	16
Imanol Gurrutxaga-Joseba Beroz	13

### Infantilak 1

Josu Eleno-Iñaki Artola	16
Josu Balerdi-Mikel Arrieta	4

### Infantilak 2

Nora Mendizabal-Iker Uriá	10
Xabat Amilibia-Eñaut Etxeberria	16

### Kadeteak

Eneko Gomez-Eñaut Iruretagoiena	16
Koldo Ponce-Jurgi Mujika	9

### 3X3 BASKET PARTIDAK SAN JUAN JAIETAN



### ALBERDI-PELAEZ NAGUSITU ZIREN KROS MISTOAN



## Bruges taldearen bisitaldia



UKEko eskubaloi taldeak denboraldia amaitutzat eman zuen aurreko asteburuan Bordele aldeko Bruges taldearen bisitaldiarekin. 15.000 biztanleko herria da eta bertara etorri ziren bi taldeak elkar ezagutzeko asmoz, eta zer hobea lagunarteko partida batzuk jokatzeko baino.

Larunbatean infantil eta kadete mailako zenbait partida jokatu ziren. Goizean, infantil mailan UKEkoak nagusitu ziren bai nesketan zein mutiletan. Jarraian, Bruges taldeko zuzendari eta gurasoek Eteneta elkartearen bazkaldu zuten eta jokala-

riek, berriz, Egape Ikastola-ko jangelan.

Arratsaldeko partidatan, Brugesekoak nagusitu ziren kadete mailan, maila horretan talde on eta indartsua baitute. Asteburu osoan zehar giro paregabea izan da, eta partida guztietan kiroltasuna nagusitu zen. Azken partidatan, adibidez, bi klube-tako jokalariek nahastuta jokatzen aritu ziren. Norgehiagoken amaieran, frantziarrek Udal igerilekuaz gozatu ahal izan zuten. Esperientzia pozgarria izan da bi taldeentzat. Datorren urtean bisitaldian joango dira urnietarrak, bertatik Bruges aldera.

## Andoaingo txirrindulariak

### EIBAR. EKAINAK 19, JUBENILAK EUSKADIKO TXAPELKETA

1. Xabier Mikel Azparren
2. Iñigo Elozegi
10. Ander Amonarriz (Andoaingo)

### GAINTZA. EKAINAK 18, ALEBINAK DENBORALDIKO AZKEN PROBA

1. Dani Fursenko (Andoaingo)
2. Igoñ Pikabea (Andoaingo)
18. Izaro Zuriarrain (Andoaingo)

## Gipuzkoako txapeldunak



Azken asteotan La Salle Berrozpe ikastetxeke 6. mailako bi taldek Gipuzkoako txapelketan hartu dute parte, futboleko (LSB 6B) eta eskubaloiaren (LSB 6N). Eskubaloiaren Gipuzkoako txapeldun izan ziren. Zorionak!

Jokalariek: Paula Bastarrica, Izaro Hernaez, Tania Garcia, Karla Hernandez, June Izaguirre, Aiora Alkorta, Maialen Murillo, Judith Diaz Eta Lorea Barrante. Entrenatzaileak: Izaskun Aizpurua, Lorena Vicente.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-NURINTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi  
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.eus  
**Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

EKAINAREN 30ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)

## Irteera

**Urnietan**

■ **Zanpatuz** taldeak antolatuta, Huescako Lizarako aterpera. Irteera: Uztailak 2-3.

## Azoka

**Andoain**

■ “Zaharrak berrituz” bigarren eskuko produktuen azoka. 40 postutik gora. 10:00-14:00 Zumea plaza. Uztailak 2, larunbata.

## Farmaziak

**Eskualdea**

■ Andoain: **Diaz**. Kale Nagusia, 19. Urnietan: **Etxebeste**. Elkano, 9. Hernani. ■ Gauzez: **Urrutia**, Hernani. Etxeberri, 1. Florida. Uztailak 2-3.

## Jaiak

**Andoain**

■ **Kaletxikiko jaiak**, asteburuan. Egitarau osoa astelehenetik 5. orrialdean. Uztailak 2, 3 eta 4.  
■ **Karrikako jaiak:** Egitaraua, datorren Aiurri. Uztailak 15, 16 eta 17.  
■ **Etxeberrietako jaiak:** Uztailak 29, 30 eta 31.

## Bilerak

**Urnietan**

■ **Urnietan Bizirik** plataformaren bilera. 19:00 Guria ondoko plaza. Uztailak 1, ostirala.

**Andoain**

■ San Juan jaien balorazioa egiteko bilera. 19:00 Urigain. Uztailak 4, astelehena.

## Aisialdia

**Urnietan**

■ **Gaztelekuak** antolatuta: Ekainak 30, osteguna: 15:00-20:00. Sukaldaritza tailerra. Uztailak 1, ositrala: 17:00-20:00. Futbolin, mus txapelketa.  
■ **Goazen!** Gaztelekuarekin: Uztailak 4, astelehena: 15:00-20:00. Irungo skate parkera. Uztailak 5, asteartea: 15:00-20:00. Hernaniko igerilekura. Uztailak 6, asteazkena: 15:00-20:00. Gaztelekuarekin zinemara.

## Igerilekua

**Urnietan**

■ Orduetgia: 10:00-20:30. Irailaren 11 bitarte zabalik.

## ZORION AGURRAK


ZORIONAK



**Nahia Alonso Arratibel**, zorionik beroena zure hamai-kagarren urtea betetzerakoan! Muxu handi bat politta! Izeba Rosaritoren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



**Rodrigo Mateok** 13 urte beteko ditu uztailaren 6an. Zorionak txapeldu! Uda ona pasa. Zure osaba, izaba, lehengusu eta amonaren partetik.


URNIETA

ZORIONAK



**Ama iurrek** ekainak 15ean ospatu zuen bere urtebetetzea. Esker mila ematen duzun maitasunagatik. Muxu handi handi bat. Zure familiakoak.

URNIETA



**ZORION AGURRAK AIURRI**  
Erraza da, eta dohainik. Emailaz: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)  
Webgunea: [aiurri.eus](http://aiurri.eus)  
**619 163 537**

## Aiurriko posta elektronikoak

**Aldaketa**

Webguneak eta posta elektroniko ezberdinek .eus domeinua dute, beraz, email bidezko komunikazioa lantzeko garaian kontuan hartu beharrekoa da.

**Emailak:**

Andoain: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)  
Urnietan: [urnieta@aiurri.eus](mailto:urnieta@aiurri.eus)  
Zorion-agurrak: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

## Elkartasun keinua Urnietan



Ekainaren 28an nazioarteko eguna ospatzearekin batera, Urnietako Udalak

LGTB kolektiboarekin bat egin nahi izan zuen. Kolorez bete zuten udaletxea.

## Ez ohiko plenoa Urnietan

Urnietako Udalak ez ohiko plenoa deitu zuen ekainaren 23ko goizean. Aztergai nagusia kreditu aldaketarena zen, zeinaren bitartez kiroldegiko

proiektua idazteko 250.000 euroko kreditu aldaketa eskatu den. EAJ-PNV eta EH Bildu alde agertu ziren, eta PSE-EE aldez aurka.

## Zinegotzi ez atxikia

Andoingo udaletxean San Juan jaien bezperan egin zuten ohiko plenoa. Bertan, ofizial egin zen PSE-EErekiko Alvaro

Gonzalez zinegotziaren haustura. Aurrerantzean bere kabuz jardungo du, zinegotzi ez atxiki modura.

## ERRAUSTEGIAREN AURKAKO PROTESTALDIA GOIKOPLAZAN



Gipuzkoako herri askotan bezalaxe, Andoainen San Juan suaren atarian errausketaren aurkako protesta ekintza egin zuten.

San Juan jaiak  
Andoainen

Akelarrea  
Urnietan

**Aiurri**  
ESKUALDEKO  
NORTASUN  
HITZAK

AIURRI.EUS GUNEAN ARGAZKIAK ETA BIDEOAK